

Hamazazpi

2015eko uda



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

- ZIGOITIKO UDALERRIKO UDALBATZA BERRIA**
- KIROL, KULTURA ETA JOLASERAKO OKETA ELKARTEA**
- ZIGOITIKO EGUNEKO ZENTROAK 10 URTE BETE DITU**
- 30 JARDUERA BAINO GEHIAGO 2015EKO EGUZKI JAIAN**
- ELKARRIZKETA: MAITE ORTIZ DE ZARATE, ABELTZAIN ETA NEKAZARIA**
- PRAKTIKATU NORDIC WALKINGA EDO MARTXA NORDIKOA ZIGOITIAN**
- ZIGOITIA EUSKARAZ, IKASTURTEA EUSKARAZ HASTEKO EZ DAGO MODU HOBERIK**
- ZER EGIN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN? BALIABIDEEN GIDALIBURUA**

Hasteko



03 Zigoitiko Eguneko Zentroak 10 urte bete ditu

2005eko maiatzean inauguratu zen



08 Elkarrizketa ATAL BERRIA!

Maite Ortiz de Zarate, abeltzain eta nekazaria

Made in Zigoitia



04 Eguzki jaia

Adina eta gustu guztietarako 30 jarduera baino gehiago, uztaileen 31tik abuzturaren 2ra



10 Kirol, Kultura eta Jolaserako Oketa Elkarte

Boloak, futbola, herri kirolak... eta dibertsio handia

Hemen eta orain



06 Zigoitiko udalerrira udalbatza berria

EH BILDUK hauteskundeak irabazi ditu eta Mikel Las Herasek jarraituko du alkatetzan



11 Zigoitia Euskaraz

Ikasturtea euskaraz hasteko, ez dago modu hoberik



07 Berdintasuna

Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua



12 Practikatu NORDIC WALKINGa Zigoitian

Aire zabalean egiteko jarduera fisikoa, inguruneaz disfrutatzeko

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2015eko uda

Azaleko argazkia: Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

Koordinazioa eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com.

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Zigoitiko Eguneko Zentroak 10 urte bete ditu

10 urte pasa dira, jada, 2005eko maiatzean Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroa inauguratu zenetik. Orduan, lau pertsona hasi ziren erabiltzen baina pixkanaka-pixkanaka eskaerak gorantz egin zuen eta 2010ean instalazioak handitu behar izan ziren. Gaur egun 20 plaza ditu, guztiak 65 urtetik gorako Zigoitiko herrietako eta Legutioko udalerriko herritarrek okupatuta. Astelehenetik ostiralera arte eta ordu batzuetan zehar (11:00etatik – 17:00etara), nagusiek partekatzen duten familiako etxe erraldoia da zentroa, hain zuzen ere. Arratsaldean bakoitza bere etxera bueltatzen da. Erabiltzaileentzako giza-zerbitzua oso garrantzitsua da: beraiek bezalako hainbat lagun aurkitzen dituzte, aisia partekatzeko eta bide batez aktibo mantentzeko. Eta senitartekoentzako lasaitasun eta arnasbide handia da: ondo zainduak eta une oro atendituta daudela badakitelako. Guztiak, erabiltzaileek eta senitartekoez, 10.

urteurrena ospatu zuten zentroan lan egiten duten profesionalen ondoan. Jardunaldi polita izan zen: aiton-amonek antzezlanak prestatu zuten, gero askaria hartu zuten eta bukatzeko lehenengo 10 urte hauetan bizi izandako une zoriontsuekin egindako bideoak ikusi zituzten.



2015eko zerga-ordaintzailearen egutegia

KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2015-09-01_2015-10-31
(bigarren epea, kuotaren % 50)

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Bigarren epea (kuotaren %50)
urriaren hasieran

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROA

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Urriaren lehenengo hamabostaldian

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA
INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa:
945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.
Faxa: 945 46 40 52, e-mail:
zigoitia@zigoitia.org

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordaintzak

Ordaintzeko lekuak: Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan.
Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitikoudala.org (www.zigoitikoudala.org (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordaintzak

Zigoitiko Udalak zuzenean

kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

BETEARAZPEN EPEA

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Gopegin eta Ondategin, uztailaren 31tik, ostiraletik, abuztuaren 2ra, domekara, arte

30 jarduera baino gehiago 2015eko EGUZKI JAIA



Argazkiak: Elena Mota.

Eguzki Jaia Zigoitiko udalaren festa da, bere 17 herrietakoa eta euren herritar guztiena. Eta, jakina, egun horietan honaino etortzen diren – jaiaren parte hartzeko- lagun guztiena.

Udalerriko elkarte eta talde batzuek lagunduta, Udalak askotariko egitaraua, erakargarria eta zabala prestatu du.

Uztailaren 31tik abuztuaren 2ra, hau da, asteburu osoan, adin eta gustu guztietarako 30 jarduera baino gehiago proposatzen dizkigu: kirola, musika, tailerrak, dantza, gastronomia, puzgarriak, lehiaketak, meza... eta baita feria ekologiko bat ere!

lazko hasiera hunkigarriaren ondoren, aurten formula errepikatuko da: aitite batek eta ume batek pregoia irakurriko dute, festari hasiera emanaz. Ondoren, Eguzki Mari kalejira aterako da Zentro Soziokulturetik Bengolarra parkeraino. Gauean herri afaria egingo da (txahal erre izango da menua) eta bukatzeko *Erdizka Lauetan* taldearekin dantza-plaza eta jarraian *Bad Sound System*-ek eta talde sorpresa

batek kontzertu bana eskainiko dute. Larunbatean, abuztuaren 1ean, VIII. Azoka Ekologikoa egingo da. Nekazaritzako elikagaiak eta artisautza-lanak erakusgai eta salgai egongo dira goiz osoan zehar. Eguerdian, Ondategin eta *Mairu* abesbatzaren eskutik, abestutako meza berezia egingo da (nagusiak elizara eramateko, autobus bat izango da goizean. Joan-etorria bakoitzaren kontura izango da). Meza ondoren, gure nagusientzako ohiko bazkaria egingo da Zentro Soziokulturelean eta jarraian, hor bertan, euren lehiaketako sari banaketa eta baita udalerriko argazki lehiaketarena ere.

Kirolak eta kontzertuak

Kirolaz gozatzeko aukera ederra ere izango da Eguzki Jaian. Herri Kirolen erakustaldia, Aretoko Futbol partiduak eta Esku Pilotakoak jokatu dira. Eta arratsaldeko 8etan Patata Tortilla lehiaketari ekiteko ordua ailegatuko da. Gauean, aldiz, kontzertuen txanda: *Astalapo* eta *Talco* taldeek joko dute eta egunsentiko 2tik



aurrean, dantzaldia *Akerbetz* taldearen eskutik. Igande goizean Bengolarra parkean puzgarriak jarriko dira, haurren gozameneko. 12:30etan umeentzako bolo txapelketa egingo da eta arratsaldean gizonezko eta emakumezkoena. Aurtengo Eguzki Jaia borobiltzeko, arratsaldeko 8etan Patxi Leiva kantautore kataluniarrak errezeitaldia eskainiko du Bengolarra terrazan.

Aurten irabazi duen kartelaren egilea **Jabi Isasi Flores** da.

“ Zigoitiko Gazte Asanbladak ere osatu du festarako egitaraua. Eguzki Jaia hasierarekin batera, uztailaren 31n, bere Gazte Eguna ospatuko du. Ekitaldi nagusia *Selektah Stepi* taldeak eskainiko duen *reagge* kontzertua izango da.



EGUZKI JAIA - ZIGOITIA 2015 / UZTAILAK 31, ABUZTUAK 1, 2 / 31 DE JULIO, 1 Y 2 DE AGOSTO

GOPEGI - ONDATEGI (PARQUE BENGOLARRA)


Zigoitiko Udalerriko udalbatza berria

EH BILDUK hauteskundeak irabazi ditu eta **Mikel Las Herasek** jarraituko du alkatez

Maiatzean udal-hauteskundeak egin ondoren, joan den ekainaren 13an, larunbatean, Zigoitiko Udalerriko udalbatza berria osatu zen.

Bertan ordezkaturik daude hurrengo talde politikoak: EH BILDU (botoen % 37,04rekin maiatzaren 24ko hauteskundeak irabazi zituen), SARRAGOA elkarte (botoen % 32,18a lortu zuena) eta EAJ-PNV (botoen % 20,25ekin). PSOEk eta PPK, aldiz, ez zuten ordezkartzarik lortu, beharrezko boto kopurura ez zirelako heldu.

Hori dela eta, datozen 4 urteetan zehar Mikel Las Heras Martínez de Laperak, EH BILDUKo zerrendaburuak eta alkatezarako hautagai bezala errepikatzen zuenak, Zigoitiko udalerria gobernatuko du berretaldeko beste 3 zinegotzien laguntzarekin: Nerea Txurruka Garate -Euskara, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Zinegotzia-, Eduardo Lorza Garcia - Parte-Hartze, Mendi, Abeltzaintza eta Nekazaritzako Zinegotzia-, eta Esther Aizpuru Saez de Zaitegi - Berdintasun, Gizarte-Ongizate eta Gazteriako Zinegotzia. Udalbatzako gainontzeko kideak hauteskudean hautatutako hurrengo zinegotziak dira: Zuriñe Fernandez de Olano Lopez de Robles (bozeramailea), Pedro Antonio



Inchaurtieta Ochoantesana eta Nuria Lopez de Letona Lengaran, SARRAGOA Hautesle Elkartetik; eta Karnele Lopez de Sosoaga Gonzalez de Artaza (bozeramailea) eta Iker Ortiz de Lejarazu Garcia de Villoslada, EAJ-PNVtik.


Zigoitiko XVII. Argazki Lehiaketa

Arabako Foru Aldundiak, Josu Izarra argazkilariak eta Arabako Argazkilaritza Elkarrekin antolatutako Zigoitiko Udaleko Argazki Lehiaketak ezagutarazi ditu jada aurtengo irabazleak. 'Zigoitiko aztarnak' lelopean antolatutako lehiaketa Blanca Bombín Plazak irabazi du 'Ondategiko elizako giltzak' lanarekin, onena epaimahaikideen ustez. Bigarren saria Elena Mota Izkoak lortu du, 'Ihintzaren arrastoa'

izeneko argazkiarekin. Imanol Txi-k eskuratu du hirugarren saria, 'Toda una vida' (horrelaxe utziko nuke, jatorrizkoan gaztelaniaz dago eta) deitutako obrarekin. Azkenik, bi akzesitak irabazi dituzte Sonia Garrido Gutierrezek 'Izango da, da, izan zen' argazkiarekin eta Wilson Serrano Velastegui 'No paso por el aro' argazkiarekin. Zorionak guztiei!!! Argazkiak ikusgai daude udaleko webgunean: www.zigoitia.eus



Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua



Zigoitiko Udalak lanean jarraitzen du emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde. Udaleko lehenengo Berdintasun Planak -iaz parte hartze prozesu baten bidez martxan jarritakoak -, aurrera jarraituko du udazkenean. Aldi berean, formazio jarduerak eta baliabideak eskaintzen dizkio Udalak bai herritar orori, bai talde espezifiko batzuei. Horien artean daukagu 'Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua'. Eusko Jaurlaritzak editatutako 24 orritako argitalpena da, euskaraz, gaztelaniaz eta beste 4 hizkuntzatan. Gidak azaltzen du era erraz eta zuzenean, besteak beste, noiz hitz egin behar dugu emakumeen kontrako indarkeriaz eta zer egin emakumeen kontrako indarkeria sufriz gero, edo susmo hori egotekotan.

Beste baliabide batzuen artean aipatzen dira:

- 112 telefono zenbakia, larrialdietakoa
- 900 840 111 zenbakia, profesionalekin konfidentzialki hitz egiteko
- edo 900 180 414 zenbakia, Arabako Biktimei Laguntzeko Zerbitzuko. Profesionalekin aurrez aurre egoteko zerbitzuko egoitzara ere joan ahal da, Justizia Jauregira, Gasteiz hiribidean, 18. zenbakian.

Izan ere, udaleko Oinarrizko Gizarte-Zerbitzua aipatzen da. Hor eskaintzen da eskubidez zer baliabide eta zerbitzu dauden eskura (aldi baterako ostalua- beharrezkoa izanez gero, laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, etab.).



Interesatu guztiek paperezko gida udal bulegoetan har dezakete edo on line bertsiora heldu hurrengo esteka jarraituz: http://www.zigoitia.eus/datos/contenido/documents/316/eu/2014_EMAKindark_EUtx.pdf

Maite Ortiz de Zarate, abeltzain eta nekazaria

'Nire lanaren onena, askatasuna da. Okerrena, oreinek landak suntsitzen dizkizutenean'



EUSKAL HERRIKO ZALDIAREN HARAGIA_ Maitek berrogeita hamar bat behor eta zaldi ditu. Argazkia: Rosa Ugarte eta Blanca Bombin.



**Maite
Ortiz de Zarate**

Eemakume zuzena eta ausarta da. Eta zoriontsua. Abeltzain eta nekazaria, berrogeita hamar bat zaldi-abelbururen eta 45 hektareatako zereal-sailaren jabea da. Gopegin jaioa, Ondategin bizi da bere senarra eta 2 seme-alabekin. Beren lanarekin bukatzen dutenean, hirurek laguntzen diote. Eta baita herriko bizilagunek eta familiakoek ere, kontatu digu harro. Eta ez da lotsatzen berak 'arazo larria' kalifikatzen duena salatze orduan: orein, basurde eta orkatzek landetan sortzen dituzten kalteen aurrean erakundeek duten geldotasuna.

- Zer ustiategi mota daukazu? Behor eta zaldiak: 40 behor ama, hazitarako zaldi 2 eta kumeak gizentzen ditut. Izan ere zereala daukat: garia landatzeko 30 hektarea eta, neguan behorak elikatzeke, belarrerako beste 15 hektarea. Lursailak Ondategi, Gopegi eta Etxaguenen daude. Gainera, baratza daukat eta, aurten, senarrak dio herriko onena dela, ja, ja, ja!

- Noiztik egiten duzu lan lehen sektorean. Eta zergatik? Nire senarrarekin ateratzen hasi nintzenean hau guztia berria zen niretzat, baina biek herrian bizi nahi genuen. Gure seme-alabei begira, interesgarria ikusten genuen eta nire aitagarrekin ustiapenarekin geratu ginen. Hemen ez zaigu falta lehentasunezko ezer; nik uste udalerrian dugun bizikalitatea hirikoa baino handiagoa dela.

- Denbora honetan guztian, nola aldatu da landa-egoera? Gauzak txarrerako aldatu dira, espezie zinegetikoek (orein, basurde eta orkatzek) larre, itxitura eta zekaleetan sortutako

kalteengatik. Batzuetan, dena bertan behera uzteko eta amore emateko gogoia sentitzen dut!

- Hala ere, egunero lanean erne eta tinko zaude. Nolako da zure laneguna? 6:45ak inguruan altxatzen naiz. Jarraian, egunero gauza berdina: etxea antolatu, gero abereak zaindu eta une bakoitzean lursailak eskatzen duena: ereintza, ongarriketara, uzta... Normalean, gaueko 9:30 -10:00etarako bukatzen dut.

- Goizetik gauera lan egiteaz aparte, zer da gogorra? Zailtasun handienak apirilean eta maiatzean datoz, behorrek erditzen dutenean. Gaizki etortzen diren erditzeak daude, putreen erasoak... Izan ere, lan asko daukagu zaldiko biltzean, titia kentzen diegunean, eta, landetan, uzta garaian.

- Zer da zure laneko onena? Nire nagusia naizela. Nire ordutegiak nik erabakitzen ditut; zentzu horretan libreagoa naiz. Eta ordu askotan aire zabalean nagoela. Okerrena ere esango dizut: oreinek, basurdeek eta orkatzek zelaiak suntsitzen dizkizutela ikusten duzunean pasatzen dituzun une txarrak, eta ikusten duzunean 'arazo larri' hori inork ez duela aintzat hartzen.

-Elkarte sektorialetan hartzen duzu parte? Bai, Asgaequinon zehazki. Euskal Herriko zaldi haragi hazkuntza (Bruselan ustez galzorian dagoen arraza, hain zuzen ere) eramaten duen elkarte da.

- Brusela aipatu duzu; erakundeak ondo egiten ari dira? Ez erabat, gehiago inplikatu behar izango lirake. Lehen sektoreaz hitz egiten dute bakarrik hauteskundeak hurbiltzen direnean. Eta bada lan egiteko benetako gai asko: abeltzaintza hedagarriari gehiago laguntzea, hainbeste eragozpen ez jartzea, gure mendietako larreak eta bideak hobetzea... Gainera gure kasuan parke natural batean gaude eta, alderdi horietan, oso utzita ikusten dut. Eta ez dut ahazten ENPrako (Erkidego Nekazaritza Politikarako) egin behar dugun izapide guztia. Erraztu egin behar da! Azkenik, fauna zinegetikoaren errolda

gutxitu behar da, guztiontzako den kantitate iraunkorretara: ehiztarientzat, abeltzaintzat eta herritarrentzat, istripuetarako arrisku larria dela eta.

- Amaitzeko, gaurko gizarteak zuen lana balioesten duela uste duzu? Bai, nire auzotarren gehiengoak ulertzen eta baloratzen du landa-eremua mantentzeko egiten dugun lana. Beharbada hemen jaiok gehiago, gure bizimodua hobeto ezagutzen dutelako.



BARATZEAN_ 'Senarrak dio herriko onena daukadala, ja, ja, ja!'

Galdera deserosoa

- Zure sektoreko udal-arduradunei zer esango zenieke?

Esango nieke sektore hau hobetzeko ekimenak (proiektuak, egin behar diren lanak, etab.) hemendik abiatu behar dutela; eta gero goiko beste erakunde batzuen aurrean aurkeztu. Esango nieke gure mendiez erabakitzeke boterea ez uzteko beste erakunde batzuen esku artean. Mendiak, gainera, gure aurretik egon direnek beti ondo mantenduta eta kontserbatuta eduki dituztenak.

Kirol, Kultura eta Jolaserako Oketa Elkarteak

Boloak, futbola, herri kirolak... eta dibertsio handia



- Zer da Kirol, Kultura eta Jolaserako Oketa Elkarteak? Eta zenbat dauka bakoitzetik?

Oketa 1987an jaio zen 'herri-kirola, talde federatuak eta tokiko txapelketak sustatzeko. Eta baita Zigoitiko bizitza soziokulturala dinamizatzeko ere, euskara klaseekin, dantza taldearekin, udalekuekin... Gaur egun kirola da ekintza nagusia, baina nolabait horrek badauka giza, kultur eta jolasteko parte bat. Gure asmoa ez da bakarrik lehiatzea, baizik eta gure udalerriko jendearekiko elkarbizitza bultzatzea, azaldu digu Mikel Mimenzak.

- Zer nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Besteak beste, Herri arteko Bolo Txapelketa antolatzen dugu; oso errotua eta partaidetza handikoa, 180 bolari baino gehiago daude Zigoitian. Era berean, bertako taldeekin osatutako Aretoko Futbol Txapelketa, 30. edizioa bete duena; Frontenis Txapelketa, duela gutxi martxan jarritakoa oso harrera onarekin; eta federatutako Aretoko Futbol ekipoak, beren 28. denboraldian. Gainera, Herri Kiroletako lehiaketa eta erakusketak egiten ditugu. Dantza taldea, aldiz, duela urte batzuk hartu zuen bere gain Udalak.

- Zuen iritziz, zer falta zaio Zigoitiari?

'Argi eta garbi - erantzuten du Mimenzak-, eta aspalditik egindako eskaria da hau, kirol-

instalazio egokiak. Daudenak zaharkituta geratu dira eta egokitze lanetan dirua gastatu da, bai, baina ez du balio behar duten kalitatezko saltoa emateko. Federatutako Aretoko Futbol ekipoak, adibidez, 10 urte baino gehiago darama Zigoitian jolastu ahal izan gabe, instalazioek gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztelako. Eta Futbol 7ko mutilek Murgian entrenatu eta jolastu behar dute, zelairik ez dutelako. Udalerrian aspalditik kirol tradizio handia izan dugu (herri kirolak, futbola, pala, boloak...) baina Arabako beste batzuekin konparatuta, ez daukagu instalazio onik.

- Zer balantze egiten duzue 28 urte hauei dagokienez?

'Oso positiboa, zalantzarik gabe. Gaur egun, zereginak banatuta daude oso ondo lan egiten duten udal elkarte desberdinen artean eta Oketa kirol eta giza jardueretan zentratzen da. Baina erreferente eta sortzaileak izan gara, aitzindariak antolatzeke Espainia mailako lehiaketak, tailerrak, udalekuak, topaketak... eta baita kiroletako materiala erosteko eta maileguz emateko ere, amaitzen du Juan Carlos Ruiz de Garibaik.

Info gehiago:

Oketaren egoitzan, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean eta 652 746 773 telefonoan

Ikasturtea euskaraz hasteko, ez dago modu hobirik

Iraileko lehenengo bi asteburuetan egingo da, urtero bezala, Zigoitia Euskaraz. Aurten, Manurgara eta Olanora egingo du bisita euskararen festak



Aste santuen inguruan hasi, eta buru-belarri jardun du Zigoitia Euskaraz prestatzeko ardura duen lan-taldeak, aurtengo egitaraua prestatzen. Lana dakar halako ekitaldi bat antolatzeak, baina ez hori bakarrik: Zigoitia Euskaraz helburua eta filosofia euskarari ahalik eta zabalkunderik handiena ematea izanik, urtero-urtero saiatzen da talde hau estrategia berriak pentsatzen, hausnartzen, ideia berritzaileak plazaratzen... Ez dute meritu makala.

Indartsu dator aurtengo egitaraua, hausnarketa eta lan guzti horien ondorio. Beti bezala, bi asteburutan egingo dira ekitaldi guztiak. Hona hemen errepasso labur bat:

Manurgatik Manurgara... Eta Olanon bukatu!

Iraileko 5ean, larunbata, bizikleta martxa egingo da, aurten, lehenengo aldiz, ibilbide zirkular eta guzti: Manurgan hasi, eta Manurgan amaituko da. Eta kirol apur bat egin ondoren hasiko da festa. Jatekoa eta edatekoa egingo da, eta baita gozatzeko moduko ikuskizunak ere: IRRIEN LAGUNEK egingo digute bisita, iaz bezala, eta iluntzea gerturatu ahala, TTEK ELEKTROTXXARANGAren esku egingo da girotea.

Iraileko 6an, aldiz, urteko euskarazko meza bakarra egingo da Olanon. Ondoren, Oketa Alai dantza taldekoen eta Mairu abesbatzaren eskutik, emanalditxoak egingo dute. Aurten, gainera, berrikuntza batekin: Mairu abesbatzarekin batera, ENTZUN abesbatzakoak ere izango ditugu, gonbidatu gisa.

Iraileko 13an, domekan

Eta, nola ez, bigarren asteburuan lehertuko da festa. Iraileko 13an, igandea, eguerditik aurrera hasiko da Udalak antolatutako ekitaldi sorta. 15:00etan elkartuko dira ehundaka euskaltzale Bengolarra frontoian, janari-edarien bueltan, urteroko bazkari herrikoian (tiketak salgai egongo dira Bengolarra tabernan eta Gasteizko Parral tabernan, 13 euroan). Bazkalondoren dantza-plazarako gonbidapena luzatuko dute dultzaineroek, larrain dantzarako pausoak adierazten dituen erritmoekin... Eta, bukatzeko (edo bukatzen hasteko) DANTZADI taldearekin egingo da berbena. Hortik aurrera, ahal duenak ahal duena, noski. Hurrengo egunean astelehena dela ahaztea, eta ikasturtea euskaraz hasteko ze garrantzia duen gogoratzea onena.

Praktikatu NORDIC WALKINGa ZIGOITIAN

Aire zabalean egiteko ariketa gure inguruneaz gozatzeko, adina edo gaitasun fisikoa edozein izanda ere

Testuak eta irudiak www.nordicwalkingunea.net webgureak utzita.



Grupo de iniciación de Zigoitia al Nordic Walking.

Nordic Walking edo *Martxa Nordikoa* aire zabalean egiten den ariketa da. Oinarria da mendian erabilitako bastoi antzekoekin ibiltzea, baina eskutoki ergonomikoaz eta eskuari lotuta bastoia mantentzen den uhal batekin. Bere jatorria Finlandiako 30. hamarkadan bilatu behar dugu. Udan eta udazkenetan, iraupen eskiatzaileak hasi ziren martxa hori praktikatzeko entrenamenduetan, gaitasun fisikoa hobetzeko eta sasoi betean ailegatzeko negura, lehiaketako sasoi. 60. hamarkadan *Bastoi Martxa* (izen horrekin ere ezaguna da), Leena Jääskeläinen eskiatzaile eta irakasleak dokumentatu zuen. 80ko

hamarkadan Estatu Batuetara ailegatu zen *Pole Walking* izenarekin eta xendazaletasuna baino askoz ariketa eraginkorragoa bihurtu zen. Azkenik, 1997an Exel fabrikatzaile nordikoak Marko Kantaneva espezialistari lagundu zion bastoi bereziak sortzeko, *Martxa Nordikoa* edo *Nordic Walking* deitu zuten diziplina berria errazteko. Laster, entrenamendu-forma hori osasunerako onura handiko jardura bezala egin zen ezagun, eta, benetan, Europako hainbat herritan Gizarte-Segurantzak *Nordic Walking* ikastaroak finantzatzen ditu prebentzio-neurri bezala eta gaitz fisiko eta gaixotasun batzuetako terapian.



TEKNIKAREN GARRANTZIA

Gure gorputzarentzako etekin handiena lortu ahal izateko, *Nordic Walking* teknika egokiarekin egin behar da. Teknika desberdinak daude, baina gehienak hurrengo baldintza hauetan oinarritzen dira:

- Besoetako eta oinetako mugimenduak txandakakoak izan behar dira, diagonalen, dabilenean bezala.
- Gutxienez bastoi batek eta oin batek lurlean egon behar dute une oro.
- Eskutokiari heldu behar zaio, *ito* barik.
- Bastoia pelbis lerroaren atzetik bultzatu behar da.
- Bastoia lurlean sartu behar da, edo segurtasunarekin lurraren gainean ezarri bultzada ona emateko. Bastoiak gutxi gorabeherako 60 graduko angelua eratu behar du.

Zigoitiko 4 ibilbide

Euskadiko *Nordic Walking* sarea 2013an sortu zen, hasieran 6 zentzorekin: Zigoitia, Barrundia, Bastida eta Arabako Teknologia Parkekoa, Araban eta Deba eta Zumaiakoa Gipuzkoan. Gaur egun 20 dira guztira, Euskal Autonomo Erkidegoan.

Zigoitiko udalerrian 4 ibilbide daude, zailtasun gradu desberdinekin. Guztiak probatu eta homologatu ditu *NORDIC WALKING ZENTROAK* markak.

Nordic Walking Zentroa Bengolarra gunean kokatuta dago. Hor, nahi duenak bastoiak alokatu ahal izateko, infomazioa eskatzeko eta ibilbideen mapa eskuratzeko.

ZUBIALDE bidea

3,8km 1:00h 67m Oso eskuragarria

Bengolarrako aparkalekutik ateratzen da, Ondategi-Gopegin. Era atseginean Berrikanora doan ibilbide erraza da. Hortik bueltatuko gara, bide desberdin batetik. *Martxa Nordikoa*n hasiberrientzako oso egokia.

GORBEA INGURUAK bidea

11,4km 2:10h 188m Eskuragarria

Ondategitik aterata, Iparraldeko helbidean abiatuta, desbideratu gabe (Manurgara doan A-3610 errepidea salbu), Larrinoa herrira ailegatzeko gara. Aurrerago eskuinera biratuko dugu Etxaguenera eramaten duen bidea hartzeko. Hego-ekialdeko helbidean jarraituz, Okoiztara iritsiko gara. Herria pasatu ondoren, bidearekin jarraituko dugu ekialderantz, Zestafera eta gero Eribera ailegatuz. Errepidea gurutzatuz, Berrikanora heldu bezain laster, eskuineko bidea hartuko dugu berriro Ondategira joateko.

Info gehiago: www.nordicwalkingunea.net

SANTA MARINA bidea

14,8km 2:45h 332m Zorrotza

Ondategi, Gopegi, Manurga eta Olano herriak zeharkatzen duen ibilbide interesgarria da hau. Beti bezala, Ondategitik ateratzen gara, Iparralderantz, Zubialde ibaiaren ondoan, desbideratu gabe (Manurgara dihoan A-3610 errepidea salbu), Larrinoara heltzeko. Hemendik, Mendebaldetik abiatuta, Manurgara ailegatzeko gara. Iparraldeko helbidea hartuz, Axpe terminotik jarraitu behar da A-3610 trafiko urriko errepidera heltzeko eta hortik GR25 bidearekin konektatzeko. Hemendik, pagadi eta harizti artean doa bidea, Olanora.

Ibilbideak jarraitzen du erreka bat gurutzatzen eta herriko ur biltegira jaitsita. Hor bidea ekialdetik jaisten da nekazaritza-bide asfaltatu batera heltzeko. Bostehun bat metro ibili ondoren, eskuinerantz desbideratuko gara Ondategi herriko goiko partean azaltzeko eta Bengolarra gunera jaisteko.

ERIBE MENDIKO IBILBIDEA

19,0km 3:30h 286m Oso zorrotza

Bide honek Eribe mendiko gailurrera hurbilduko gaitu. Ibilbide luzea da, Ondategi, Gopegi, Berrikanora, Etxabarri-Ibiña, Buruaga, Zestafera eta Eribe herriak lotzen dituena.

Berrikanora eramango gaituen lotura batean hasten da, Bengolarra gunean, eta alde nabarmenik gabeko mendi bidetik, Etxabarri-Ibiñako hirigunera iritsiko gara. Herria pasatu ondoren, eskuinera nekazaritzako pabiloia uzten duen bidea hartuko dugu, jarraian berriro eskuinera doan desbideratzetik jarraitzeko. Galerarik gabe Buruagara heltzen da. Herria ekialdetik utziko dugu, Eribe mendiko inguruetara hurbiltzeko. Hemendik Zestafera jaisten da, Hegoaldetik Eribera abiatzeko. Kilometro bat ibili ondoren, Berrikanora iristen da, hortik hasierako bidetik Ondategira itzultzeko.

kaka kultura versus txilarren kultura

'Izakiak eta gauzak komunikatzen dituen miraria'. Eta kulturaren beste definizio batzuk

Testu eta argazkien hautaketa: **Javier Arbulu**



Miguel García de Cortázar.

Badaramatzat aste batzuk **kultura** hitzaren definizio posible baten bila. Lagunei mezua bota nien, bizkor iritsi ziren erantzunak. Egon badaude hitza soilik entzuteak urtikaria eragiten dienak. Javitxin: 'Kultura Estatuaren departamentu bat da'. Rubén: 'Kultura ez da esistitzen, gurasoak dira'. Alfre: 'Desikasi daitekeen jakite eta ideien multzoa'.

Egon ziren, era berean, beste pertsona bati galdera bota ziotenak. Itziarrek aitari eta Gorkak amari galdetu zieten. Aitak esan zuen: 'Nagusien ipuinak herrian, hori da kulturarik garbiena'. Amak: 'Aplikagarriak diren ezaguera-multzoa, pertsona edo komunitate batekoa, denboran zehar transmititzen, partekatzen dena eta luze dirauena'.

Beste norbaitek zelaira begiratzeko eskatu zidan. Luis: 'Kultura? egun batean haize bat

"delgao, delgao" zebilela esan zidan idien tipoa'. Iñigo: 'Kultura hitzaren atzetik aztarrikatzen den laborantzako metafora. Laboratzea, kasu honetan, ez lurra, baizik eta espiritua, ahalik eta ondoen elikatzeke... Zerbait biziduna, non jakitea zapoarekin lotuta dagoen (sapere eta sapore)'.

Autoritateen definizioak bilatu zituztenak ere badaude. Marta: 'Pentsamendu modernoak pentsatu du kultura eta bizitza erabat kontrako bi elementu direla eta kultura aukeratu du, bizitza gutxietsiz. Ortegarentzat, kontrajartze hori okerra da, kulturak eta bizitzak elkarren beharra dutelako'.

Rubenek jarraitu zuen esaten: 'Kudeaketa kulturala ez da esistitzen. Kultura egiten da edo ez da egiten, eta hori da dena. Bai dagoena da boterearen kudeaketa.

Boterea kudeagarria da. Kultura, ez. Hori dela eta, interesatzen zaidan galdera da: noren esku dago kultura, eta zer preziotan?'. Ruben, Manuel Delgadorekin bat dator 2016ko Donostia Europako Kultur Hiriburuaz galdetuta ohartarazten duenean: 'Benetako kultu kulturalerik hitz egin beharko genuke. Kultura zentzumenezko iturri bat da, edozein prozesu legitimatzen duena eta egokia, beharrezkoa, nahitaezkoa eta naturala egiten duena, zekenki kapitalista izanda ere'.

Norbaitek kapitalismoa erasotzeak ez gaituelako harritzen eta, hala ere, *kultura* hitzarekin zerikusia duen guztiak eztaba daezina dirudi (hori da bere arriskua). Maitasunaren eta askatasunaren izenean hilketa nazkagarriak egiten direlako. Era berean, kulturaren izenean altxatzen eta zimendatzen dira dirutza batzuk. Gaur egun toki zehatz batzuetan *kultura* hitza benetako ibiltzeko baimena eta bulda dela dirudielako (era berean gauza bera direnak, beste leku batzuetan, *segurtasuna* edo *arrisku-prima* hitzak).

René Char kapitaina

Zorionez, René Char berriro dator erreskatatzera. Bere Hipnos-enorrietan, 61. zenbakian, esaten du: "Afrikako iparraldetik iritsitako ofizial bat harritzen da *nire kondenatutako gerrillariak* – berak deitzen dituen bezala- berarentzako ulertezina den hizkuntza hitz egiten ikusten dituenen, bere entzumena irudien mintzamenari uzkurra izateagatik. Ohartarazten diot jargoak xebreak baino ez direla izaten, bitartean **hemen erabiltzen dugun hizkuntza izakiek eta gauzak komunikatzen dituen mirariaren ondorioa dela, zeinen intimitatean etengabe bizi garen**'.

Liburutegiko talaiatik batek ikusten du nola negozio batzuk *kultura* hitzaren bidez legitimatzen saiatzen diren eta, zorionez, ikusten du, era berean, Charrek aipatzen duen beste gauza hori, non aurkitzen dudana Elenak esandako espiritu bera: 'Bizitzari eta bere misterioari lotutako zerbait. Behetik gorako bidean hasten den zerbait eta gero kontrakoa (inoiz alderantziz). Zerbait egiazki libre. Zerbait egiazkoa partekatzearekin zerikusirik duena'. Ikusten dut Danielengan bere etxeko kakoaren



René Char (Alexandre kapitaina), hirugarrena ezkerretik hasita.



Daniel Santa María.

historiaz hitz egiten duenean; ikusten dut txilarren arteko koloretako maskorrak eta lauzatxoak jartzen dituzten nesketan; eta ikusten dut, udaren ilunabarrean, Peggy eta Miguelenean saskia jasotzerakoan.

Atsedenerako, eta kutsatu gabeko edertasuneko lekua non berezkotasuna eta naturaltasuna aurkitzen diren, 'izakiek eta gauzak komunikatzen dituen miraria' gure burua intimitatera eta egunerokotasunaren misteriora entregatzen baldin badakigu, ikuskizun eta iruzurrari uko egiten badiegu. Sorgueko nekazari horiek, ofiziala hainbeste haserretzen zutenak eta Luis handiari hainbeste gustatzen zaizkionak, hitz egiterakoan islatzen duen miraria eta misterioa.

Garraio publikoko linea berrien ezarpena

Momentuz ez da hobetu gaur egun dagoen Gasteiz – Etxaugen linea; hau da, Zigoitiko ibilbide gehienak eskaintzen dituen (Gorbeia Merkatal Gunea, Apodaka, Gopegi, Larrinoa, Murua eta Etxaugen; eta baita Berrikano, Manurga, Okoizta eta Zestafera joaten dena). Astelehenetik ostiralera, Gasteizera joateko 4 bidaia eta itzultzeko 3 eskainiz jarraitzen du. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin izandako elkarriketen arabera, maiztasunak handiagotuko dira irailean: lanegunetan Gasteizera joateko 7 bidaia eta itzultzeko 6 jarriko dira martxan, eta asteburu eta jaiegunetan 4 joateko eta beste hainbeste bueltatzeko. Garraio publikoko birmoldaketa horrekin, linea 1 izango da hau eta aipatutako hobekuntzez gain, Etxabarrilbiñako herrian geldialdi bat ekarriko du.

Izan ere esan behar da 14 linea (Gasteiz-Izarra) eta 15a (Gasteiz-Laudio), pasa den ekainaren

22an martxan hasi zirenak, gure udalerriri nolabaiteko zerbitzua eskaintzen diotela Zaitegin geldituta.

14 lineak Zaitegitik Gasteizerako 6 bidaia eskaintzen ditu lanegunetan. Eta bueltatzeko beste 6, baina bakarrik *gerturatze* moduan (autobusa Zaitegin gelditzen da, bakarrik bidaiariak horrela eskatuz gero). 15 lineak, aldiz, joateko 4 bidaia eta bueltatzeko beste 4 eskaintzen ditu asteburu eta jaiegunetan. Kasu guztietan billete arruntak 1,60 € balio du eta BAT txartelarekin ordainduz gero, 1,28€. Gainera, familia ugarietzako eta errenta txikiko nagusientzako deskontuak daude.

Azkenik, bus geldialdirik ez duten herrientzako *Nahierako Zerbitzua* eskaintzen du Aldundiak. Bidaiariak geldialdi hurbilenera eramaten dituen taxia da. 1,70€ko prezioa dauka eta ezinbestekoa da alde zuzenetik eskatzea 627 411 127 telefono zenbakira deituta (Aitor Zubiaur).

Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA														
Astelehenetik Ostiralera, Lunes a Viernes		*	*	7:00	7:02	7:04	*	*	*	7:08	7:10	*	7:13	7:18		7:50
		*	*	10:00	10:02	10:04	*	*	*	10:08	10:10	*	10:13	10:18	10:25	10:50
		*	*	15:35	15:37	15:39	*	*	*	15:43	15:45	*	15:48	15:53	16:00	16:25
		*	*	20:50	20:52	20:54	*	*	*	20:58	21:00	*	21:03	21:08	21:15	21:40
<p>*Hurbiltzeko zerbitzua, alde zuzenetik abisatua Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasturtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua</p> <p>*Servicio de acercamiento con aviso previo Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar</p>																

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA														
Astelehenetik Ostiralera, Lunes a Viernes		9:00	9:25	9:32	*	*	*	9:42	*	*	*	9:46	9:48	9:50	*	*
		14:45	15:10	15:17	*	*	*	15:27	*	*	*	15:31	15:33	15:35	*	*
		20:00	20:25	20:32	*	*	*	20:42	*	*	*	20:46	20:48	20:50	*	*
<p>*Hurbiltzeko zerbitzua, alde zuzenetik abisatua</p> <p>*Servicio de acercamiento con aviso previo</p>																